

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

**Hutsen zuzenketa, honako iragarki honena: 2026-1544 iragarkia, Vitoria-Gasteizko Udalak 2026ko ekainaren 3an 63. zenbakiko ALHAOn argitaratua, 2026rako kultura proiektuak, ekitaldiak eta jaialdi finkatuak babesteko dirulaguntzen deialdiaren ebazpenari buruzkoa**

2026-1544 zenbakiko iragarkiaren zerrendetan akatsak aurkitu direnez, eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 27ko 28/2014 Foru Dekretuaren 19.2.a) artikuluekin bat etorriz (dekretu horrek ALHAO arautzen duen azaroaren 20ko 13/2006 Foru Araua garatzeko erregelamendua onesten du), iragarki hori osorik argitaratzen da ondoren.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 3a

*Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzua burua*  
**ROBERTO MARROQUINTABORDA**

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

##### Kultura

**Kultur proiektuei eta finkatutako ekitaldi eta jaialdiei laguntzeko 2026ko dirulaguntzen deialdiaren ebazpena**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko otsailaren 20an onetsi zituen kultur proiektuei eta finkatutako ekitaldi eta jaialdiei laguntzeko dirulaguntzen 2026ko deialdia eta oinarriak. berrehun mila (200.000,00) euro bideratuko dira horretarako, 2026o ekitaldirako udal aurrekontuko 23.12.03.3341.48933 kultur proiektuetarako dirulaguntza-deialdia partidaren kontura:

– Hirian erreferente diren edo bertan kultura sustatzera bideratuta dauden ekimen, jaialdi eta egitarauak, edozein alorretan delarik ere (arte eszenikoak, musika, ikus-entzunezkoak, letrak, folklorea, arte plastikoak edo beste), betiere kultur agente lokalek antolatu eta kudeatuak. Kontzeptu osorako zuzkidura ekonomikoa: 175.000,00 euro.

– Dinamizazio soziokulturalera, kulturartekotasuna sustatzera, bizitza kulturala bultzatzera, kultura integrazioarako eta gizarte-kohesiorako balio gisa garatzera, kulturaren alorrean garapen pertsonala garatzera (jakituria eta sormena sustatuz) eta abarretara zuzenduriko jarduera eta programak, betiere kultur agente lokalek antolatu eta kudeatuak. Kontzeptu osorako zuzkidura ekonomikoa: 25.000,00 euro.

Udalbatzak 2026ko martxoaren 27ko osoko bilkura onetsitako 2026ko aurrekontuan jasotzen denez, 2026ko kultura-proiektuetarako dirulaguntza- deialdirako 23.12.03.3341.489.33 partidaren aurrekontu-zuzkidura berrehun eta hamar mila eurokoa da (210.000,00 euro). Beraz, tokiko gobernu batzarraren 2026ko apirilaren 17ko erabakiaren bidez, hamar mila euroko (10.000,00 euro) igoera onartu da 2026rako proiektu kulturalak eta ekitaldi eta jaialdi finkatuak babesteko dirulaguntzen

deialdiaren zuzkidura ekonomikoan. Zenbateko "hori hirian erreferente diren edo bertan kultura sustatzera bideratuta dauden ekimen, jaialdi eta egitarauak, edozein alorretan delarik ere (arte eszenikoak, musika, ikus-entzunezkoak, letrak, folklorea, arte plastikoak edo beste), betiere kultur agente lokalek antolatu eta kudeatuak" atalean kontsignatzen da, eta 175.000,00 eurotik 185.000,00 euro izatera pasatzen da.

Deialdiaren oinarriak 2026ko martxoaren 6ko Arabako Aldizkari Ofizialean (28. zenbakian) argitaratu ziren, eta deialdiaren aurrekontu-igoera 2026ko maiatzaren 11ko 53. zenbakiko aldizkarian.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko otsailaren 19an hartutako erabakiaren arabera, berariaz eskuordetzen zaio kultura eta hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkariari deialdi hau ebazteko eskumena.

Deialdiaren hamalagarren oinarriaren arabera, balioespen teknikoak batzordeak eskumena izango du dirulaguntzak emateari buruzko edozein zalantza argitzeko eta erabakia hartzeko. Eskabide guztiak baloratu ondoren, txosten tekniko bat egingo da, eta deialdiaren ebazpen-proposamena aurkeztuko zaio kultura eta hezkuntza saileko zinegotzi ordezkariari, ebazpena eman dezan.

Deialdiaren seigarrena oinarriak hala xedatzen du: "balioespen batzorde teknikoak izango du aurkeztutako proiektu bakoitza zein kontzeptutan sartuko den zehazteko ahalmena. Aurkeztutako proiektu guztiak balioetsi ondoren, baldin eta kontzeptuetakoren bat hutsik geratzen bada edo kreditua sobera geratzen, balioespen batzorde teknikoak kreditua kontzeptu batzuetatik beste batzuetara aldatzeko proposatu ahalko dio zinegotzi ordezkariari, betiere deialdi honetarako onetsitako aurrekontu-kreditua gainditu gabe".

Balioespen-batzorde teknikoaren 2026ko maiatzaren 15eko aktan jasotzen denez, 56 proiektua aurkeztu dira deialdian. Horiek balioetsi ondoren, eta 2. kontzeptuan kreditua soberan geratu denez, balioespen-batzorde teknikoak proposatzen du kreditua 2.kontzeptutik 1 kontzeptura transferitzea, 6. oinarrian jasotakoaren ildotik, eta lehen kontzeptuko kreditua 193.150,00 eurora handitzea, deialdi honetan onartutako aurrekontu-kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu gabe.

Kontuan hartu behar dira dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, lege horren araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 errege dekretua, eta 2005eko ekainaren 17ko dirulaguntzei buruzko udal ordenantza, araudi horien arabera idatzi baitira oinarri hauek.

Aplikagarriak dira Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorra, eta kultura eta hezkuntza sailak kultur proiektuei eta jai-ekitaldi finkatuei laguntzeko dituen dirulaguntzen oinarriak, zeinek deialdi hau arautzen baitute.

Kontuan hartu behar da 2026ko ekitaldiko udal aurrekontuan aurrekontu-zuzkidura egokia eta nahikoa dagoela, berrehun eta hamar mila (210.000,00 euro) euro, hain zuzen ere, 2026ko ekitaldiko udal aurrekontuko 23.12.03.3341.48933 kultur proiektuetarako dirulaguntzen deialdia partidaren kontura, deialdi honen ondoriozko ordainketa guztiak egin ahal izateko.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, balioespen-batzorde teknikoak egindako proposamena aintzat harturik, eta deialdi hau ebazteko eskumenak eskuordetzeari buruz Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko maiatzaren 16an hartutako erabakia dela medio, Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariak hau

#### EBATZI DU

Lehena. Deialdiko baldintzak betetzen zituztela egiaztatu eta deialdiko bi kontzeptuetan aurkeztutako proiektuak balioetsi eta lehenetsi ondoren, laguntzak emango zaizkie jarraian aipaturiko onuradunei, hemen adierazitako zenbatekoarekin:

1 Kontzeptua. Hirian erreferente diren edo bertan kultura sustatzera bideratuta dauden ekimen, jaialdi eta egitarauak, edozein alorretan delarik ere (arte eszenikoak, musika, ikus-entzunezkoak, letrak, folklorea, arte plastikoak edo beste), betiere kultur agente lokalek antolatu eta kudeatuak.

Emandakoa, guztira: 193.132,10 euro.

ENTITATE ESKATZAILEA	IFZ	PROIEKTUA	PUNTUAZI OA	EMANA
Asociación negrasteiz kulturbeltz literatur- elkarte kulturala / asociación cultural literaria	G21861406	Negrasteiz beltz festival III Festival internacional de novela negra y policiaca de Vitoria-Gasteiz	83	11682,10
Asociación cultural aztarna beltza	G44904159	Aztarna Beltza Festival 2026	78	10063,60
Play gasteiz S.L.	B01579127	Vitoria-Gasteiz, ciudad de cine	76	9416,20
Asociación altraste danza	G01558386	Danza Álava 2026	74	8768,80
Iteraer S.L.U.	B75418442	II Festival FIAR	74	8768,80
Arabako bertsozale elkarte	G01151414	Arabako bertsolari txapelketa 2026	73	6000,00
Asociación kultura bandera elkarte	G01843507	Afrikaldia-festival vasco de cines africanos 2026	73	8445,10
Asociación de profesionales del diseño gráfico de Álava, diga, Arabako diseinu grafikoaren profesionalen elkarte	G01519941	Creativity is female fest 2026	72	8121,40
Asociación cultural de teatro kolecivo monstrenko	G01469956	Jornadas monstrenkas 2026	72	8121,40
Haz koop. elk. txikia	F01587666	Al margen del deterioro 26	72	8121,40
Eduardo Hernando	16297673B	150 gr. Festival de artes escénicas	71	7797,70
Asociación cultural inmersiones	G01522663	XIX Congreso de artistas emergentes de Euskal Herria	68	6826,60
Asociación cultural Gasteiz fights cancer elkarte	G13728639	Festival GFG 2026	68	2000,00
Asociación cultural	G24840993	1ª edición del Festival GazteKlasika Jaialdia	67	5000,00
GazteKlasika				
Asociación cultural in situ art kultur elkarte	G16927139	In situ art festival	67	6502,90
Asociación cultural zuzararte	G01554781	Humor y mechas 2026	67	6502,90
Parasite kolektiboa	G01504620	Zurrunbilo. Euskal arte eszeniko garaikideen jaialdia XI edizioa	66	4000,00
Eeditorial saure S.L.U.	B01335447	Bienal BiblioGea 2026: "Donde el corazón florece" de Lucky Books	65	5400,00
Asociación de dibujantes de cómic atiza	G01348861	Crash cómic 2026	65	5855,50
Arroxbola sormen elkarte	G01551910	Noche scratxe gaua	64	5531,80
Vam culture app S.L.	B56279953	Hurbil sessions	64	5531,80
Asociación para la promoción de los juegos de mesa bgg	G02720332	Gasteiz jokoan 2026	64	3091,55
Adurtza dantza taldea elkarte - Adurdan	G01571421	Adurtza batuz IX	63	2107,00
Asociación de amigos de la música de cámara de Vitoria	G01294883	FCIMV Festival internacional de música	62	4884,40
Jare euskal kultur elkarte	G01484765	Jare dantza taldearen 2026ko proiektua	62	790,00
Les bobe bobe kultur elkarte	G09771189	Sukharte	62	4884,40
Entzun producciones S.L.	B01536986	Batbatean 2026	62	4884,40
Asociacion belenista de Alava	G01047232	2026	59	3913,30
Asociacion sociocultural afrika miniaturan	G01583640	"Viga reggea fest"	58	3589,60
Gasteiz kantuz - kantuzaleen elkargunea	G01552504	Euskal Herria kantuz eguna	57	3265,90
Asociación fotógrafos de Gasteiz fotogasteiz	G01561869	VIII Edición del festival de fotografía de Álava	56	2942,20
Asociación swingvergüenza de Vitoria Gasteiz (Araba/Álava)	G01473867	Jazz&Swing. III Jaialdia Gasteiz festival	55	2618,50
Amaia Bono Jimenez	72829645F	Doipa	55	2618,50
Buena luz S.L.	B86316882	Jardín remoto books	53	1971,10

Asociación cultural metaskala fest de Álava	G75952861	Metaskala 2026	51	1323,70
Aritz Lopez Gomez	72757774B	Barzakh	51	1323,70
Asociación cultural axart kultur taldea	G01173368	Mil años de la historia de Lasarte. Conferencia y visita guiada a la iglesia de Lasarte	50	465,85

2. kontzeptua: dinamizazio soziokulturalera, kulturartekotasuna sustatzera, bizitza kulturala bultzatzera, kultura integraziorako eta gizarte-kohesiorako balio gisa garatzera, kulturaren alorrean garapen pertsonala garatzera (jakituria eta sormena sustatuz) eta abarretara zuzenduriko jarduera eta programak, betiere kultur agente lokalek antolatu eta kudeatuak.

Emandakoa, guztira: 16.850,00 euro.

ENTITATE ESKATZAILEA	IFZ	PROIEKTUA	PUNTUAZIOA	EMANA
Asociación afro de residentes afro-americanos	G01165612	XXXI Semana intercultural "Referentes/erreferenteak" año 2026	73	4.000,00
Asociación cultural raíces de Europa	G01380328	XXII Jornadas de cultura europea	71	4.000,00
Asociación arte por los derechos y las libertades humanas - guerrilla kulturala elkarte	G01540848	Sutondoan	69	3.850,00
Asociación socio-cultural y de cooperación al desarrollo Ucrania-Euskadi	G95777678	Kultubaba fest	61	2.650,00
Asociación cultural manifiesto	G72691157	"No"	59	2.350,00

Dirulaguntza honen xede diren proiektu guztiek indarrean dagoen araudian aurreikusitako neurriak bete beharko dituzte diruz lagundutako ekitaldia edo jarduera egiteko unean. Era berean, espazio publikoa okupatuz gero, Vitoria-Gasteizko Udaleko Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Sailak emandako baimenak izan beharko dituzte.

Bigarrena. Halaber, deialdi honetako oinarrietan ezarritako betekizunak betetzen ez dituztela egiaztatu ondoren, eskatutako laguntzak ukatzen zaizkie eskatzaile hauei:

1.1. Ez betetzeagatik 2 C oinarrian ezarritako kasua: dirulaguntza jasoko duten kultur proiektuek herritarrei irekiak izan beharko dute —programako jardueren ehuneko 80tan gutxienez—, Vitoria-Gasteizko udalerrian garatu eta gauzatu beharko dira, eta gasteiztar guztiei zuzenduak izan beharko dute; esperientzia berriak izan ahalko dira, edo lehendik dauden programa, ekitaldi eta jaialdiei jarraipena eman, eta kulturaren arloren baten barrukoak izan beharko dute: prestakuntza, sormena, zabalkundea, ikerketa, etab. Ezta 3. D oinarrikoa ere: "Ez dira diruz lagunduko gehienbat entitate eskatzailearen bazkide diren pertsonen zuzendutako proiektuak"

1.1.1. "Pulso urbano: impulso a la banda local y formación activa" proiektua, Elena Rodrigo Estebanek aurkeztua.

1.2. Ez betetzeagatik 3A oinarrian ezarritako kasua: "ez dira diruz lagunduko proiektu oso bat osatzen ez duten ekintza, ikuskizun eta esku-hartze artistiko bakarrik"

1.2.1. "Libro relatos" proiektua, Pedro González de Viñaspre Genotek aurkeztua.

1.2.2. Zuzeneko diskoa grabatzeko proiektua, Iñaki Palacios Moranek aurkeztua.

1.2.3. "Cossafinah 2.0" proiektua, Borja Salazar Mayorak aurkeztua.

1.3. Ez betetzeagatik 3C oinarrian ezarritako kasua: "Ez dira diruz lagunduko helburu nagusiz ez kultur sustatu eta zabaltzea, baizik eta beste batzuk —sozialak, kirolaren arlokoak, erlijiosoak, politikoak, osasunaren arloak, eskola-eremua...— dituzten proiektuak.

1.3.1. "Arabako gizarte-eraldaketari buruzko solasaldi parte-hartzaileen zikloa" proiektua, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos erakundeak aurkeztua.

1.3.2. "Mujeres que abren camino" proiektua, ADIM EGIEk aurkeztua.

1.3.3. “Zabalganako kale-arte eszenikoen jaialdia” proiektua, Zabalgana Batuz Auzo Elkarteak aurkeztua.

1.3.4. “Electropicnic solidario Raíces de Vitoria a Gaza” proiektua, Lirain Jáuregui Painok aurkeztua.

1.4. Ez betetzeagatik 3H oinarrian ezarritako kasua: “Ez dira diruz lagunduko beste programa, ekipamendu, udal-sail eta beste erakunde publiko batzuetan egindako proiektuak”

1.4.1. “Korrika” proiektua, Euskaraz Koop. E. k aurkeztua.

1.5. Ez betetzeagatik 3. A oinarrian ezarritako kasua: “Ez dira diruz lagunduko proiektu oso bat osatzen ez duten ekintza, ikuskizun eta esku-hartze artistiko bakarrak”, ezta 3. C oinarrian ezarritako kasua ere: Ez dira diruz lagunduko helburu nagusitzat ez kultura sustatu eta zabaltzea, baizik eta beste batzuk —sozialak, kirolaren arlokoak, erlijiosoak, politikoak, osasunaren arloak, eskola-eremua...— dituzten proiektuak.

1.5.1. “La memoria en la boca” proiektua, Begoña Martín Treviñok aurkeztua.

1.6. Oinarri hauetako 11. oinarrian adierazitako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik dirulaguntza ukatu zaien proiektuen zerrenda: “Irizpide horiek aplikatzen direlarik, gehienez eskura daitezkeen 100 puntuetatik gutxienez 50 lortzen dituzten proiektuak aukeratuko dira”

– “Ciclo The Tap Jazz Club 2026” proiektua, The Tap Jazz Club kultura-elkarteak aurkeztua: 37 puntu.

– “60 aniversario” proiektua, “San Frantzisko Javier” Hogar Navarro de Vitoria-Gasteizek aurkeztua: 37 puntu.

– “Festival de Live cinema Festibala” proiektua, Sociedad Alavesa de Medios Audiovisuales: 44 puntu.

– “Latitud sonoras 2026” proiektua, Solidaridad Vasco-Ecuatoriana elkarteak aurkeztua: 37 puntu.

Hirugarrena. Laguntza horien zenbatekoa 209.982,10 euro 2026ko ekitaldirako udal aurrekontuko 23.12.03.3341.48933 kultur proiektuetarako dirulaguntzetarako deialdia izeneko kultura eta hezkuntza sailaren aurrekontu-partidaren kontura kontsignatzea, deialdi honen ondoriozko ordainketa guztiak egin ahal izateko, eta ordainketa onestea.

Laugarrena. Ebazpen hau ALHAOn, dirulaguntzen datu-base nazionalen, eta udalaren webgunean argitaratzea.

Bosgarrena. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, alde aurretik aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa spresuki edo presuntzios ebatzi arte. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko maiatzaren 20an

*Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkaria*  
**SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA**